

INDUSTRIA-PRODUKZIOAREN INDIZEA, 2016ko UZTAILA


Euskal AEko industria-jarduerak % 1,2 egin zuen behera 2016ko uztailean

Ekoizpen industrialaren indizeak % 1,5 egin du gora 2016ko lehenengo zazpi hilabeteetan

Eustaten datuen arabera, 2016ko uztailean % 1,2 egin du behera Euskal AEko ekoizpen industrialak, lan-egutegiko termino homogeneoetan aztertuta, 2015eko hilabete berari dagokionez. 2016ko lehenengo zazpi hilabeteetako balantzean % 1,5eko hazkundera izan da 2015eko aldi berekoarekin alderatuta.

Urtaro-eraginak zuzenduta, % 0,8 egin du behera Euskal AEko ekoizpen industrialak aurreko hilabetearen, hau da, 2016ko ekainaren, aldean.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Joera desberdinak izan ditu, ondasunen destino ekonomikoaren arabera, 2016ko uztailleko indizearen bilakaerak 2015eko uztaillekoarekin alderatuta. *Ekipo-ondasunek* % 4,2 egin dute gora, *Bitarteko ondasunek* % 0,9 behera eta *Energiak* % 14,6. *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 1,1 egin dute behera, hain zuzen ere, *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 10,5 jatsi direlako eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* % 3,5 igo direlako.

Sektoreen arabera, industria-sektore handietan igoerarik handiena *Garraio-materialetan* (% 17,3) eta *Kautxu eta plastikoen* sektorean (% 1,9) izan da. Behera egin dute, aldiz, *Energia elektrikoa, gasa eta lurrinak* (% 16,6) eta *Material eta tresneria elektrikoak* (% 7,8).

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkundetasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-0,6
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	-16,6
09 - Kautxua eta plastikoak	1,9
13 - Makineria eta tresneria	-4,0
14 - Garraio-materiala	17,3
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	0,8
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-7,8
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-2,4

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeka aztertuta, positiboa izan da uztailleko ekoizpen industrialaren indizearen urte arteko bilakaera Araban (% 7,1 egin du gora), baina behera egin du Bizkaian (% 3,8) eta Gipuzkoan (% 2,8).

Hilabete arteko aldakuntza-tasa ere positiboa izan da Araban, eta % 0,8 egin du gora 2016ko ekainarekin alderatuta, baina Bizkaian eta Gipuzkoan % 1,8 eta % 0,6 egin du behera, hurrenez hurren, aurreko hilabetearekin alderatuta.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2016ko uztaila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Uzt2016 / Uzt2015	A(Uzt2016) / A(Uzt2015)(*)	Uzt2016 / Eka2016	Eka2016 / Mai2016
Indize orokorra				
Euskal AE	-1,2	1,5	-0,8	1,6
Araba/Álava	7,1	8,9	0,8	1,3
Bizkaia	-3,8	-0,8	-1,8	1,1
Gipuzkoa	-2,8	-0,1	-0,6	2,2
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-1,1	-1,5	2,3	0,4
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-10,5	-7,5	0,1	5,4
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	3,5	1,0	3,1	-1,3
Ekipo-ondasunak	4,2	8,3	-1,9	3,8
Bitarteko ondasunak	-0,9	0,5	-0,5	0,0
Energia	-14,6	-6,2	-1,3	-2,4

(*) 2016ko urtarriletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2015eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko datu-bankua